

EmpleoAraba



Florida kalea 56, behea
Arreta ordutegia:
Astelehenetik ostiralera
09:00etatik 13:00etara

‘EmpleoAraba’ Vital Fundazioak eta SEA Arabako Enpresariak 2016ko maiatzean abian jarritako asmo handiko ekimena da. Bere helburua Arabako industria-sektorean dagoen lan-eskaintza eta lan-eskaera bateratzea da, Arabako enpresetan dauden berehalako kontratazio-beharrak asetzeko. Horietako gehienek, % 45ek, industrien ekoizpen, muntaketa eta mantentze sailetan jarduten dute. Haien atzetik, % 20k, ingeniari eta kalitate-kontrol sailetan dauden beharretan.

Informazioa

‘EmpleoAraba’ elkarteak orientazio, tutorizazio eta laguntza zerbitzu pertsonalizatua eskaintzen die hautagai bakoitzari. Horrez gain, berriazko prestakuntza ematen die profesional tituludunen eta lan-eskatzailen **ezagutzak eta gaitasunak** enpresen hautaketa-prozesuetara **egokitzeko**.

Arabako lurraldeko enpresek behar dituzten profil profesional kualifikatuak identifikatzen dituen datu-base bat sortuta, hautagaiei **laneratzeko** laguntzen zaie (orientazioa eta bitartekotza, zeharkako gaitasunen eskola, tarteko aginte eskola eta abar). Programaren beste helburuetako bat nazioartean esperientzia duten Arabako talentuak berreskuratzea eta

itzultzea da.

Ibilbide pertsonalizatu bat ezarri ondoren, pertsonak zenbait **prestakuntza-jardueretan** parte hartzen dute, **beraien gaitasunak hobetzeko**. Besteak beste taldeko 'Prestakuntza Pildorak' eta 'Zeharkako Gaitasunen Eskolak' hainbat arlotan emango diete prestakuntza, hala nola komunikazio eraginkorra enpresan, talde-lana, produktibitatea handitzea, gaitasun komertziala edo autokritika eta erabakiak hartzea. Bestalde, 'Tarteko Aginte Eskolak', profesionaleri beraien gaitasun-esparruetan kudeaketa-jarduerarik onenak egin ahal izateko prestakuntza ematea du helburu. Horrela, erabakiak hartzean haien ekimena ere sustatuko da.

Kokapena

EmpleoArabaren egoitza Florida kalean 56, behean dago.

Jendaurreko ordutegia astelehenetik ostiralera izango da 9:00etatik 13:00etara.

Telefonoa: 945 000 400

[Informazio gehiago](#)